



Usurbilgo Udala

2019KO ABENDUAREN 19AN EGINDAKO EZOHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta
Lur Etxeberria Gurrutxaga
Joxe Mari Iribar Zapiain
Aroa Etxeburua Ugartemendia
Luken Arkarazo Silva
Oskar Santamaria Pikabea
Itziar Basterrika Unanue
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Carlos Pérez Fraisoli
Andoni Atxega San Sebastian
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2019ko abenduaren 19an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

1.- 2019/10/31KO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.

Batzarkideek, 2019ko urriaren 31ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2019KO AZAROAREN 25ETIK ABENDUAREN 13RA (2019/1005-2019/1061).

Alkatetzak 2019ko azaroaren 25etik abenduaren 13ra bitartean (2019/1005-2019/1061) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.



Usurbilgo Udala

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO HAUR ETA GAZTEEN SUSTAPENERAKO ERAKUNDEARTEKO SAREARI (GAZTEMATIKA) ATXIKIMENDUA.

Alkateak azalpenak eman ditu. Gipuzkoako Foru Aldundiak haur eta gazteen sustapenerako sare bat daukala aipatu du, Gaztematika izena duena, eta proposamena izango litzatekeela dio horretara atxikitzea.

Irizpenean jasotzen diren aurrekariak aipatu ditu eta nola 2019ko apirilaren 16an Gipuzkoako Foru Aldundiak dekretua onartu zuen haur eta gazteen sustapenerako erakundearteko sarea sortzeari buruzkoa.

Dekretu horren 12. artikuluan jasotzen dela esan du Udalak Sareari atxikitzea eta, hala nahi izanez gero, plenoaren erabaki bitartez berretsi beharko dela nahi hori.

Jarraitu du esanez Udal hau sare horretako kide dela 2010etik eta kultura sailetik egiten den balorazioa positiboa denez, horretara atxikitzea berrestea proposatzen dela.

Batzarkideek, Kultura, euskara eta gazteria batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp.zk.: KE.02/2019- 0229

Botere publikoek haur, nerabe eta gazteei dagokienez duten ardura berezia ez da haiek babestera mugatzen; haur eta gazteen sustapena sustatzea ere badute xede. Haur, nerabe eta gazteen inguruko berariazko politika publikoetan, babesa eta sustapena alderdi osagarri eta ezinbestekoak dira; izan ere, pertsonen bizitzakoaldi horien berezko zaurgarritasunaz arduratzea bezain funtsezkoa da gizakien bizitzan oinarritutakoak diren etapa horietan haien garapen osoa bultzatzea. Haur eta gazteen sustapenerako politikek, haien babeserako politikekin batera, haur, nerabe eta gazteentzako berariazko jardueren esparru bat osatzen dute eta,aldi berean, haur, nerabe eta gazteen eskubideekiko ardura areago nabarmentzen dute eta eraginkorrago egiten, hala politika publiko guztietan nola gizarte bizitzan.

Euskal Autonomia Erkidegoak oraindik gazteriar buruzko lege orokor edo globalik ez badu ere (onartzeko bidean dago), ezin da bazter utzi arlo horretan izan den jardura arauemaile eta planifikatzailea, besteak beste gazte planetan jasoa. Arautze eta partaidetza jardura hori lagungarria izan da haur eta gazteen sustapenaren jarduketara esparrua garatu, moldatu eta ezagutzera emateko; horren fruitu gisa nabarmendu daitezke, adibidez, Euskadiko Kontseiluaren 6/1986 Legea eta Kultura sailburuaren 1999ko abenduaren 10eko Agindua, Gazteen Euskal Behatokiari buruzkoa.

Hain zuzen ere, azken hogeita hamar urteetan Gipuzkoako gizarte zibilak eta erakunde publikoek ibilbide nabarmena egin dute haur eta gazteen sustapenean. Ibilbide horrek ardura publikoa eta lankidetzazko partaidetza baliatzeko eredu bat ekarri du, hiru



Usurbilgo Udala

etapak, haurtzaroa, nerabezaroa eta gazteria, *continuum* gisa hartzen dituen. Haur eta gazteen sustapenerako politika sektoreen arteko koordinazioa bultzatu eta zeharkako eragina izan nahi duen arlo gisa eratu da haur, nerabe eta gazteekin zuzenean esku hartzeko zerbitzu propioak dituen, haur eta gazteen partaidetza sustatuz politika sektorial guztietan eta gizarte bizitzan haur, nerabe eta gazteekin adeitsua edo haien aldekoa izango den ikuspegi bat sortzeko.

Gertuko udalen ardurapeko zerbitzu eta jardueren aldeko apustua egiten jarraitu dugu, bai eta koordinazio eta laguntza lanetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren funtzioa egituratzen eta indartzen ere, udalaz gaindi eta lurralde mailan. Apustu horri esker, 2009an Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sarea, Gaztematika deitua, sortu zen. Sare horrek, hainbat urtez martxan egon eta hobetuz eta prozesu eta aktibo baliotsuak sortuz jardun ondoren, udalen eta aldundiaren arteko lankidetzaren hitzarmenak oinarri harturik, Gipuzkoako biztanleria eta lurralde ia osoa hartzen du, eta ehun zerbitzu egonkor baino gehiago ditu martxan.

Ibilbide hori eginda, gaur egun ezinbestekoa da sare hori juridikoki berrestea, mantentzea eta are sakontzea, jardunbide egokiak trukatzeko eta arlo horretan zailtasun edo gabezia gehien dituzten udalei laguntza instituzionala emateko ez ezik, Gipuzkoako Lurralde Historikoa partaidetza eraginkorra sendotzeko topagune eta proposamenen iturri izan dadin, jardunbide egokiak partekatu ahal izateko sare eta esparruak eraikiz, sinergiak bilatuz eta gazteen sustapenerako prozesuak berrelikatuz, modu horretan sorkuntza partekatua eta lankidetzazko gobernantzaren alde eginez. Foru dekretu honek, beraz, aitorpen juridikoa ematen dio sareari, eta, horrekin batera, baita merezi duen bultzada ere.

Horren ondorioz, 2019ko apirilaren 16an, elaborazio eta kontraste prozesu zaindu baten ondoren, besteen artean EUDELekin, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sarea sortzeari buruzko Dekretua onartu zen. Onarpen honekin Sareak aintzatespen juridikoa ematen zitzaioan eta, bide batez, merezi duen bultzada.

Hain zuzen, Dekretu honen 12. artikuluan, Udalak Sareari atxikitzeari buruz ondorengoa esaten da:

12. artikulua. Udalak eta gainerako tokiko erakundeak Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sareari atxikitzea.

- 1. Udalen atxikimendua sarera, honi buruzko berariazko udal akordioaren bidez gauzatuko da.*
- 2. Sareari atxikitzeak gizonen eta emakumeen arteko berdintasun ikuspegia txertatzea dakar berekin, eta konpromiso hauek betetzea:*

Aktiboki parte hartzea Sareko organo eta egituretan esleitutako pertsonen bitartez, hala arlo politikoan nola teknikoan.

Proposamen eta ekimenen bidez Sarearen funtzionamendua bultzatzea.



Usurbilgo Udala

- a) Sareko organo edo egitura eskudunen bidez Foru Aldundiak tokiko erakundeen alde haur eta gazteen sustapenaren arloan bideratzen dituen diru-laguntza lerroak banatzeko irizpideak zehazteko eta ezartzeko prozesuetan parte hartzea eta erabakiak hartzea.
- b) Haur eta gazteen sustapenerako programa zehatzak, prestakuntza programak, topaketak, mintegiak eta bestelako jarduera hezitzaile batzuk proposatzea, Sarean eskumena duten organo edo egiturek eztabaidatu ditzaten eta erabakiak har ditzaten.
- c) Haur eta gazteen sustapena errazteko gida metodologikoak edo bestelako edozein bitarteko edo tresna proposatzea, eta batez ere sustapen planen ereduak eta estrategiak diseinatzea.
- d) Sareari ezagutzera ematea haur eta gazteen sustapenaren arloan martxan jarri diren jardunbide egokiak, parte hartzen duten erakundeen ezagutza aberastu dezaketenak eta haur eta gazteen sustapenerako foru edo udal politikak –eta gainerako tokiko erakundeenak– hobetu ditzaketenak.
- e) Sarearen aurrekontuak ezagutzea eta, hala badagokio, haien inguruan erabakiak hartzea, horretarako eskumena duten organo edo egituren bidez.
- f) Foru aldundiak udalerriei eta gainerako tokiko erakundeei laguntza teknikoa eta lankidetzak eskaintzeko aurrera eramaten dituen prozesuetan laguntzea, arazoak edo konpondu gabeko auziak behar bezala identifikatuz eta haur eta gazteen sustapenerako tokiko politikak hobetzea xede duten arauak eta ordenantza ereduak, proposatutako gida metodologikoak eta Sarean bultzatzen den bestelako edozein ekimen sustatuz.
- g) Sarea dinamizatzea dauden egituren bitartez, eta, beharrezkoa balitz, Foro Teknikoak koordinatzea.

Gure udalaren kasuan, aipatutako Sarean 2010etik hartu du parte, eta denboraldi horretan, parte-hartzea, nagusiki, urtero hitzarmenak sinatuz gauzatu da.

Dekretuko 12. atalean adierazten den modura, aproposa ikusten da Usurbilgo Udala Gaztematikari atxikitzea.

Hori horrela, abenduaren abenduaren 9an egindako Soziokultura Batzordean Luken Arkarazo, Oxkar Santamaria, Andoni Atxega eta Patxi Suárez-en aldeko botoekin, onartutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA



Usurbilgo Udala

Lehenengoa: Usurbilgo Udala atxikitzen zaio Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sareari, Gaztematikari.

Bigarrena: akordioaren berri emango zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Sailari.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

4.- HAASETAKO A-108 (ATSOBAKAR) EREMUKO HEU 108.4 ETA HEU 108.5 EXEKUZIO UNITATEETAKO ETA ALBOKO ESPAZIO PUBLIKOAREN ANTOLAMENDU XEHATUAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENARI TARTEKATUTAKO ALEGAZIOA ERANTZUTEA ETA ALDAKETA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Alkateak azalpenak eman ditu.

Hasteko aurrekarien berri eman du, dakiten bezala Lasarteko Udalak Atsobakar inguruan hainbat kirol instalazio aurreikusita ditu eta proiektu hori aurrera eman ahal izateko Usurbilgo Arauen antolamendu berri bat planteatu behar izan zela esan du. Planteamentu berri horri irailaren 26an egindako plenoan hasierako onarpena eman zitziola eta jendaurrean egon den bitartean alegazio bat aurkeztu dela jakinarazi du, esanez eremu horretan Luzuriaga-Fagorren jardueraren ondorioz lur kutsatuak daudela.

Aipatutako alegazioa aintzat hartu edo ez erabakitzeke, udal arkitektoak Lasarteko Udalarir iritzia eskatu ziola adierazi du. Honen aurrean, Lasarteko Udalak erantzun zuena zen, batetik, momentu honetan ordenazioaz ari dela eta horretaz aurrerago hitzegin beharko litzatekeela eta, bestetik, lur horiek ez daudela inongo katalogotan sartuta eta, beraz, Lasarteko Udaletik egiten den proposamena da alegazioa aintzat ez hartzea.

Beraz, Lasarteko Udalaren iritzia kontutan hartuta, udal arkitektoak egiten duen proposamena da alegazioa aintzat ez hartzea eta ondorioz aldaketa behin betikoz onartzea.

Batzarkideek, Hirigintza batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:



Usurbilgo Udala

“Esp. Zenbakia: HZ.01/2017-0400

AURREKARIAK

Gipuzkoako Foru Diputatuen Kontseiluak, 2011ko irailaren 6an egindako bilkuran, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina onartu zuen. Testu Bategina 2013ko irailaren 10ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 182. zenbakian.

Orain berriz, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-108 (Atsobakar) Eremuko HEU 108.4 ETA HEU 108.5 exekuzio unitateetako eta alboko espazio publikoaren Antolamendu Xehatuaren Aldaketarako dokumentu osatua aurkeztu du LASARTE-ORIAKO UDALAK. Dokumentua Gaizka Perosterena Arregi arkitektoak eta Patxi De Assas Yagües abokatuak idatzi dute.

ALDAKETAREN XEDEA ETA JUSTIFIKAZIOA

LASARTE-ORIAKO UDALA sustaturik, Gaizka Perosterena Arregi arkitektoak eta Patxi De Assas Yagües abokatuak prestatutako dokumentuan biltzen da Aldaketaren xedea eta justifikazioa. Hitzez hitz honakoa dio memorian:


(...)

“Hori horrela, dokumentu honen helburua da eremuko aurreikuspenak egokitzea Lasarte-Oriako Udalak izan duen ideiarra. Ideia hori gauzatzeko, hain zuzen, SESTRAK aurreproiektu bat egin du, honetan datzana: eremuaren barruko bere jabetzako lursailak erabiltzea homologa daitekeen atletismo pista bat jartzeko eta zerbitzu osagarrien eraikin bat jartzeko, instalazio berriari lotua, sarbidea kontrolatzeko eta pistaren osagarri diren jarduerak gauzatzeko erabiliko dena (aldagelak, zerbitzuak, materialen biltegia, gune teknikoak eta administraziokoak, foto finish-a, arbitroen eta epaileen gelak, etab.).

Hala, dokumentu honen xede nagusia da proiektu horri estaldura juridikoa ematea, kontuan hartuta beharrezkoa dela bereziki bi lursailetan (108.4 eta 5) egungo antolamendu xehatua berregokitzea; izan ere, bi ekipamendu lursail horien eta titulartasun pribatuko beste batzuen osaera aldatu egingo da proposamen berriaren ondorioz, tokiko bide sistemaren baten zati bat birkokatu egingo da eta, gainera, beharrezkoa da azaleraren bat doitzea, sarbidearen zati bat egokitzeko. Hori guztia titulartasun erabat publikoko lursailei dagokienez.

(...)

Alabaina, kontuan izan behar da, batetik, dokumentu honek bi lursaili eta beste zati txikiagoren bati eragiten diela, eta ondorioz, dokumentuaren edukia horretara egokituta dagoela; eta, bestetik, eremurako antolamendu, eraikuntza eta hirigintza baldintza orokorrekin indarrean jarraitzen dutela, atletismo pista barne hartuko duen lursail berria osatzearen ondoriozko zenbait doikuntza izan ezik.



Usurbilgo Udala

(...)

Hori dela eta, aldaketa honen xedea da eraginpeko lursailei dagokien hirigintza araubidea eta antolamendu xehatua behar besteko xehetasunez zehaztea, gainerako parametroei kalterik egin gabe.

HASIERAKO ONESPENA ETA JENDAURREAN JARTZEA

Hala, 2019ko irailaren 26an, Plenoak, udal teknikarien aldeko txostenak kontutan izanik, zera erabaki zuen hitzez hitz:

LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-108 (Atsobakar) Eremuko HEU 108.4 eta HEU 108.5 exekuzio unitateetako eta alboko espazio publikoaren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA hasieraz onartzea.

BIGARRENA: Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak xedatzen duenaren arabera, espedientea jendaurrean jartzea 20 lanegunez, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohiko egunkarietan argitaratuz, interesatuek proiektua aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Lasarte-Oriako Udalarari ematea honakoa jakinaraziz: "Aldaketa-espedientea tramitatzeko prozeduran edo lanak gauzatzeko prozesuan ingurumenaren gaineko eragin esanguratsuren bat egiaztatzen bada, Usurbilgo Udalak Lasarte-Oriako Udalarari eskatuko dio ingurumen-prozedura betetzea eta/edo beharrezko eta bidezko ikusten diren ingurumen-neurriak hartzea".


Hartutako erabakiaren arabera, espedientea jendaurrean jarri zen hilabetez, ondoko iragarkiak argitaratuz:

- El Diario Vasco: 2019-09-28
- Gara: 2019-09-29
- Berria: 2019-10-01
- Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (188. zenbakia): 2019-10-02

ALEGAZIOA

Jendaurreko epealdian, honako alegazioa aurkeztu da:

Alegazioa zenbakia	Interesatua	Sarrera	
		Eguna	Zenbakia
1	MANU ARANBURU AGIRRE E.K.T. Ekologista taldearen ordezkartzan	2019-10-21	3074



Usurbilgo Udala

1.- alegazioa

Sarrera data – Sarrera zenbakia: 2019-10-21/3074

Interesatua: MANU ARANBURU AGIRRE

Alegazioak honela dio hitzez hitz:

Agurtzane Solabarrieta Mesa Alkatesari:

Kaixo behien izenpetzen duena Manu Aranburu Agirre usurbiltarra Nan zka 15895174-N, helbidea Nagusia /. 1º A Pk 20 170 , Ekologista Taldean izenean E.K.T.

Honako hau adierazi nahi dut:

Egin hauetan "informazio publikoa" zabaldu da Atsobakar Eremuko lekua. Inguru hau ziero kutsatua dago Luzuriaga-Fagor isurketarekin: dioxinak, hautsak, soinuak, oraindikan Usurbilgo Udalak ez ditu baimendu, 2015etik pendiente dago.

Hau dela eta zera eskatzen dugu: Zati UE-108.3 -ean hesi begetala jartzea: baso mixtoa:, egilea Lasarteko Udalak, Usurbilgo udala dagokio, Luzuriaga parean ere harresi begetala ere jartzea.

Posdata : Proiektoan uste dut energia beriztagarriak ez dira jartzen, eta komeni da jartzea noski

Begirunez, Agur Ekologistak!!!!!!

Manu Aranburu


Udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, hala proposatuta sustatzaileari, Lasarte-Oriako Udalari, alegazioaren inguruko iritzia eskatu zitzaien.

LASARTE-ORIAKO UDALA IRITZIA ALEGAZIOAREN INGURUAN

Lasarte-Oriako Udalak, 2019ko azaroaren 22an helarazi du alegazioaren inguruan, Antolamendu Xehatuaren Aldaketaren erredakzio-taldeak egindako txostena. Hitzez hitz honela dio txostenak:

INFORME DE ALEGACIONES A LA APROBACION INICIAL DE LA MODIFICACION DE LA ORDENACION PORMENORIZADA DE LAS PARCELAS UEU 108.4, UEU 108.5 Y ESPACIOS PUBLICOS ADYACENTES DEIAREA A-108 (TE) ATSOBOKAR DE USURBIL

El Presente informe viene a dar respuesta al contenido de las alegaciones al documento de aprobación inicial de la modificación de la ordenación pormenorizada de las parcelas UEU 108.4, UEU 108.5 y espacios públicos



Usurbilgo Udala

adyacentes del área A-108 (TE) Atsobakar de Usurbil. A continuación, se concreta la respuesta al único escrito de alegaciones presentado durante el período de exposición pública.

1.- Alegación presentada por Manu Aranburu Agirre, en nombre y representación de E.K.T. con registro de entrada 21 de octubre de 2019 núm. 3.074.

Ponen de manifiesto en la zona de Atsobakar la existencia de factores contaminantes provenientes de la fábrica de Luzuriaga-Fagor, consistentes en dioxinas, polvos y ruidos, cuestión que desde 2015 está pendiente de abordar el Ayuntamiento de Usurbil. Solicitan la implantación de setos vegetales de separación de la fábrica y el UE-108.3 y un muro vegetal frente a Luzuriaga. Finalmente piden que el proyecto contemple la implantación de energías renovables.

CONTESTACION


El documento que ahora se expone supone una modificación de la ordenación pormenorizada que actualmente consta en el Texto Refundido de la Revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Usurbil. El motivo es poder readecuar las parcelas de equipamiento ya existentes al futuro proyecto de equipamiento deportivo donde se pretende implantar una pista de atletismo. La formalización concreta de dicha pista de atletismo requerirá necesariamente la existencia de un proyecto posterior que deberá obtener licencia municipal.

Respecto al contenido de la alegación de referencia, señalar lo siguiente: En primer lugar el suelo sobre el que actúa mediante la reordenación de planeamiento no se encuentra dentro del inventario de suelos del Decreto 165/2008, de 30 de septiembre, de inventario de suelos que soportan o han soportado actividades o instalaciones potencialmente contaminantes del Gobierno Vasco, de tal forma que en este momento se entiende su estado de no contaminado y en consecuencia no está sujeto al procedimiento de declaración de calidad reservado para este tipo de suelos.

No obstante lo anterior si hubiera algún problema de tipo medioambiental en el entorno como el que apunta el alegante y el mismo es dimanante de la factoría de Luzuriaga-Fagor, esta es una cuestión propia del cumplimiento de las medidas correctoras de la licencia de actividad que toda empresa debe tener, de tal forma que corresponde a la Administración competente fiscalizar el cumplimiento de las mismas, cuestión por otra parte necesaria pero ajena a un expediente de modificación de ordenación pormenorizada cuyo objetivo no es otro que adecuar exclusivamente el planeamiento a las necesidades del futuro proyecto.

En relación a las solicitudes de implantación de los setos y las medidas de eficiencia energética, implantando energías renovables, podrán ser estas cuestiones propias de proyecto y no de planeamiento y siempre y cuando se refieran al ámbito objeto del mismo.

Por todo lo expuesto se propone la desestimación de la alegación de referencia.



Usurbilgo Udala

Fdo: Gaizka Perosterena
ARQUITECTO

Fdo: Patxi De Assas
ABOGADO

UDAL ARKITEKTOAREN TXOSTENA

Alegazioa eta aldaketaren erredakzio-taldeak egindako txostena aztertu ostean, udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, 2019ko azaroaren 29an honako txostena eman zuen:


BULEGO TEKNIKOA **Udal Teknikariak Alkate andreari** **PLANEAMENDUA**

USURBILGO HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN **TESTU BATEGINAREN A-108 ATSOBARKAR EREMUKO** **ORDENAZIO XEHAKATUAREN ALDAKETAREN** **ALEGAZIOEI TXOSTENA**

KOKAPENA: A-108 ATSOBARKAR, Usurbil.
ALEGAZIOAK: 1. alegazioa: Manu Aranburu Agirre (2019-10-21)
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.01/2017-0400

AURREKARIAK

- 2017ko uztailaren 27an Lasarte-Oriako udalak Usurbilgo AASSTB-ren A-108 Atsobakar eremuko ordenazio xehakatuaren aldaketa dokumentua aurkeztu du.
- 2017ko urriaren 11ean bilera egin da Usurbilgo udalean dokumentuaren idazleekin.
- 2017ko urriaren 26an Lasarte-Oriako udalak informazioa helarazi du emailaz.
- 2017ko urriaren 30ean Lasarte-Oriako udalak informazioa helarazi du emailaz.
- 2017ko apirilaren 13an Lasarte-Oriako udalak Usurbilgo udalaren lursailaren eta bere lursail baten balorazio txostenak helarazi ditu emailaz.
- 2018ko uztailaren 24an udal arkitektoaren txostena.
- 2018ko urriaren 2an interesatuak dokumentu berria aurkeztu du.
- 2018ko urriaren 5ean udal arkitektoak txostena idatzi zion, honakoa esanaz:
- 2019ko otsailaren 4an interesatuak dokumentu berria aurkeztu du.
- 2019ko martxoaren 11ean udal arkitektoaren txostena
- 2019ko apirilaren 24ean udal arkitektoaren txostena
- 2019ko maiatzaren 10ean Lasarte-Oriako Udalaren izenean dokumentu osatua aurkeztu da.
- 2019ko maiatzaren 27an Lasarte-Oriako alkatearen idatzia aurkeztu da.
- 2019ko maiatzaren 30ean udal arkitektoaren txostena
- 2019ko irailaren 18an hasieraz onartzen da
- 2019ko urriaren 21ean Manu Aranburu Agirrereren alegazioa
- 2019ko azaroaren 4an Lasarte-Oriako udalari igortzen zaio



Usurbilgo Udala

- 2019ko azaroaren 20an Lasarte-Oriako udalaren erantzuna

TXOSTENA

Txosten honen helburua Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen testu bateginaren A-108 ATSOBAKAR eremuko ordenazio xehakatuaren aldaketaren hasierako onespenerari aurkeztutako alegazioari erantzutea da.

AURKEZTUTAKO ALEGAZIOA

Manu Aranburu Agirre jaunak alegazioa aurkeztu dio 2019ko urriaren 21ean Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-108 Atsobakar eremuaren ordenazio xehakatuaren aldaketaren hasierako onespenerari.

– ALEGAZIOAREN EDUKIA:

Manu Aranburu Agirrek bere alegazioan adierazten du aipatutako Atsobakar eremua Luzuriaga-Fagor fabrikaren isurketen ondorioz kutsatua dagoela, eta 2015 urteaz geroztik dagoen gaia dela.

Horrez gain, bi eskaera egiten ditu:

1. HUE 108.3an eta Luzuriaga parean hesi begetala jartzea.
2. Proiektuak energia berriztagarriak barneratzea.

– ALEGAZIOAREN AZTERKETA:

Aurrekarietan aipatu bezala, Manu Aranburu Agirreraren alegazioa Lasarte-Oriako Udalari igorri zitzaion azterketa egin zezaten, eta hau da azaroaren 20ko erantzunean jasotakoa:

Eremuaren kutsadurari buruz:

(...) el suelo sobre el que se actúa mediante la ordenación de planeamiento no se encuentra dentro del inventario de suelos del Decreto 165/2008, de 30 de septiembre, de inventario de suelos que soportan o han soportado actividades o instalaciones potencialmente contaminantes del Gobierno Vasco, de tal forma que en este momento se entiende su estado de no contaminado y en consecuencia no está sujeto al procedimiento de declaración de calidad reservado para este tipo de suelos.

No obstante lo anterior, si hubiera algún problema de tipo medioambiental en el entorno como el que apunta el alegante y el mismo es dimanante de la factoría Luzuriaga-Fagor, ésta es una cuestión propia del cumplimiento de las medidas correctoras de la licencia de actividad que toda empresa debe tener, de tal forma que corresponde a la Administración competente fiscalizar el cumplimiento de las mismas, cuestión por otra parte necesaria pero ajena a un expediente de modificación de ordenación pormenorizada cuyo objetivo no es otro que adecuar exclusivamente el planeamiento a las necesidades del futuro proyecto.



Usurbilgo Udala

Egiten dituen bi eskaerei buruz:

En relación a las solicitudes de implantación de los setos y las medidas de eficiencia energética, implantando energías renovables, podrán ser éstas cuestiones propias de proyecto y no de planeamiento, y siempre y cuando se refieran al ámbito objeto del mismo.

Bukatzeko, Lasarte-Oriako Udalak alegazioa aintzat ez hartzea proposatzen du.

ONDORIOAK

Orain arte adierazitako guztian oinarrituta, alegazioaren edukia eta honen erantzuna aztertuta, alegazioa EZ ONARTZEA proposatzen da.

Guzti hau dela-eta, A-108 ATSOBAKAR eremuko ordenazio xehakatuaren aldaketaren dokumentuaren behin betiko onespenerari ALDEKO txostena idazten zaio.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2019ko azaroaren 29an
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Amaia Illarreta Izeta

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2019ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Agurtzane Solaberrieta, Lur Etxeberria, Beñat Larrañaga, Mirari Azurmendi eta Patxi Suárezen aldeko botoekin, aho batez, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA


LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-108 (Atsobakar) Eremuko HEU 108.4 eta HEU 108.5 exekuzio unitateetako eta alboko espazio publikoaren Antolamendu Xehatuaren Aldaketaren hasierako onespenerako dokumentuari aurkezturiko alegazioa honelaxe erantzutea:

- 1. alegazioa

Interesatua: MANU ARANBURU AGIRRE E.K.T. Ekologista taldearen ordezkartzan

Alegazioa aintzat EZ hartzea udal arkitektoak bere txostenean emandako arrazoiengatik.

BIGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-108 (Atsobakar) Eremuko HEU 108.4 eta HEU 108.5 exekuzio unitateetako eta alboko espazio



Usurbilgo Udala

publikoaren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA (2019ko maiatza) behin betikoz onartzea.

HIRUGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-108 (Atsobakar) Eremuko HEU 108.4 eta HEU 108.5 exekuzio unitateetako eta alboko espazio publikoaren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA (2019ko maiatza) Foru Aldundira igortzea, bertako hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gorde dadin.

LAUGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-108 (Atsobakar) Eremuko HEU 108.4 eta HEU 108.5 exekuzio unitateetako eta alboko espazio publikoaren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA (2019ko maiatza) behin betiko onespena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohiko egunkarietan argitaratzea, hirigintza-plana Foru Aldundiko hirigintza plangintzaren erregistro administratiboan jaso dela aipatuz.

BOSGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-108 (Atsobakar) Eremuko HEU 108.4 eta HEU 108.5 exekuzio unitateetako eta alboko espazio publikoaren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA (2019ko maiatza) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

5.- GALDERA-ESKAERAK.

Ez da galdera edo eskaerarik egin.

Alkateak aipatu du aurreko gobernuak zuen ohiturari jarraituz bihar eguerdiko 13:30ean udal langileekin hamaiketako bat egiteko asmoa dutela eta momentu hori aprobetxatzen dutela ere urtean zehar jubilatutako direnei omenalditxo bat egiteko.

Bertaratzeko gonbidapena luzatu die gainontzeko zinegotziei.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:10etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.